

Literatura ▸ LIBURUAK

Euskaldun bat L'Après Mai 68n

BENAT SARASOLA

Ez dira ohikoak kontakizun autobiografikoak euskal literaturan, Txillardegiaren *Gertakarien lekuko*, Jose Ramon Goikoetxearen *Mentxakaren aitorpena* eta Harkaitz Canoren *Piano gainean gosalitzen* lanetatik landa nekez aurkitzen da gisa horretako lanik. Eta pena da ezen, besteak beste, gaur egun hainbeste balioesten den errealitate/fikzioarekin jolas-teko bidea ematen baitu.

Euskal autobiografiaren zerrenda mehar horri, bada, Mariasun Landaren *Festa aldameneko gelan* hau gehitzen zaio orain, zeinetan gasetan Parisa joan zenekoak kontatzen baititu. Zehazki, 1968ko irailetik 1971ko otsailera arteko aldia da liburuan jorratzen dena, nahiz eta nagusiki 1968-1969 denbora tartea kontatzen den xehetasunez. 19 urterekin Parisa joateko asmo horiek hasiera-hasieratik egongo dira idazle izateko desirarekin loturik, ongi idazteko ezinbestekoa iruditzen baitzaio bizitzea (BIZI); eta, jakina, bizitza non egongo da 1968. urtean ez bada Parisen? Hala, *chambre* batetik bestera, Landaren nondik norakoak ezagutuko ditu irakurleak. Azaldu beharreko

oro azaltzen da: Sorbona, Gauloise zigarretak, Paco Ibañez, errefuxiatuak, Simone de Beauvoir, Charles de Gaulle... Kontakizuneko ardatz nagusiak bi dira: idazlearen «kontzientzia hartzea» auzi politikoaren gainean eta bere amodio kontuak. Hasieratik, Jose Jabier da bere «Pertsona Interesgarrien» zerrendan lehena, baina distantziak lagundurik-edo (Jose Jabier Donostian geratzen baita), apurka beste gizona batzuk azaltzen zaizkio Parisen, sexu-harremanak izatera inoiz iristen ez den arren, barruanduen «moja nagusiaren» erruz. Hala, Lukas ezagutuko du, klandestinitatean bizi den espainiar marxista dogmatiko bat, eta haren laguntzaz klase kontzientzia lortzen joango da, berarengana erakarria sentitzeaz gainera. Bi ardatz horien azpian, ordea, beste ñabardura batzuk topatzen ahal dira, zinez interesgarriak direnak. Adibidez, bere *fille au pair* gisako lanean, haurrekin harremanetan jarri eta horientzako ipuina kontatzen hasiko da estreinakoz.

Liburua, halaber, belaunaldi oso baten gaztaroaren testigu gisa uler liteke. Esate baterako, Ramon Saizarbitoriairen zenbait lanetako



■ 'Festa aldameneko gelan'

Egilea: Mariasun Landa. **Itzultzailea:** Jesus Mari Lasa. **Argitaletxea:** Erein. **Urtea:** 2007.

giroa gogorazti dit niri: askapen sexualarekin loturiko kontuak, eztabaida politikoak, euskaldunen hostasuna sexu-harremanetan, atzerria Euskal Herriaren etorkizunerako eredu gisa... Nolanahi ere, aipatu behar da, orobat, hasie-

ran batez ere halako desilura batek blaitzen dituela Landaren bizipenak, Paris amestuenaren eta Paris errealearen arteko amildegia handiegia izango balitz bezala (Montmatri buruz esaten dituenak lekuko).

Bestetik, aipatzekoa da autobiografiaren eraikuntza nola gauzatua dagoen. Berau osatzeko materiala ezkutatu beharrean (garai hartako eskutitz, eguneroko, argazkiak), kontakizunean bertan azaltzen dira. Horregatik, zenbaitetan kontakizunak jauzi egiten du plano batetik bestera (errealitate diskurtsora), eta agerian geratzen da memoriaren eta iraganaren arteko distantzia. Eta ez hori bakarrik, hainbatetan Landak berak zailantzan jartzen ditu bere eguneroko edo eskutitzetan idatzitakoak, bere burua justifikatzeko idatzitakoak zirelako, adibidez; eta, horrenbestez, horrelako dokumentu intimoei sarritan ematen zaion benetakotasun eta egiazotasuna erlatibizatu egiten du. Uste dut alderdi hori dela liburuko interesgarrienetako.

Liburuaren jatorrizko bertsioa, nire harriurarako, gasteleaz idatzita dago, baina Jesus Mari Lasaren itzulpena hain da bikaina (*dorpe* hitzaren erabilera alde batera lagata) ezen sarritan ematen baitu Landa bera dela hitz horiek idatzi dituen.

>> bsarasola@berria.info



■ 'Egan', 2007ko 3. eta 4. zbkia.

Argitaratzailea: Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte.

Joseba Gabilondoren *Globalizazioak eta kulturantzitasunaren fantasma*, eta Ibon Egaña, Jon Kortazar eta Iratxe Retolazaren *2006ko euskal literatura* artikulua ditu *Egan* aldizkariaren zenbaki berriak. Horretaz gain, Luis Mari Mujika, Mikel Atxaga, Patxi Salaberri Muñoa, Iñaki Zubeldia, Amaia Iturbide, Luis Haranburu Altuna eta beste hainbat egileren lanak ere badira.



■ 'Kalegats', 13. zenbakia

Argitaratzailea: Euskal Idazleen Elkarte. **Data:** 2007ko abendua.

Antzerkia da *Kalegats* berriko gai nagusia, eta, tartean, Antton Lukurik egindako elkarrizketa. Fito Rodriguezek, Antton Olariagak, Mikel Asurmendik eta Karlos del Olmok antzerkiaren inguruan idatzi dute, eta hainbat idazle, aktore eta zuzendariren iritziak ere badira. Erramun Landak, Iratxe Etxebeste eta Asel Luzarragak beste gai batzuk jorratu dituzte.



■ 'Neurtitzak'

Egilea: Eusebio Erkiaga. **Apailatzailea:** Igone Etxebarria. **Argitaratzailea:** Labayru Ikastegia. **Urtea:** 2007.

Eusebio Erkiagaren poema guztien bilduma argitaratu zuen iaz Labayru Ikastegiak, *Goizean eta arratsan*. *Eskubete neurtitzak* liburua bikoitza. Orain, Erkiagaren poema hautatuekin, 72 orrialdeko liburu osatu du Igone Etxebarriak, «Erkiagaren olerkigintzan aparte-ko interesik euki barik haren berri hartu gura dauanarentzat».

Kafkaren sugetzar sintaktikoak

BIXENTE SERRANO IZKO

Nietzschek filosofia ilustratu hankaz goratu zuen, XIX. mendeko azkenaurreko hamarkadan. 1900ean, antropologia hasi zen jartzen hankaz gora Freud, ametsak psikologikoki interpretatzen. Handik bortz urtera, unibertsio fisikoaren zientziari iritsi zitzaion txanda, Einsteinen eskutik. Alerik ere ez zen tente gelditu hortik aitzina. Eta ezagutzaren iraultza hura sormenaren arlo guztietara hedatu zen hurrengo urteetan. Bertzeak bertze, literaturara. Hiru idazle erraldoi aipatuko nituzke nik bereziki: Joyce, Proust eta Kafka, alegia, XX. mendeko bigarren eta hirugarren hamarraldietan, ordua arte alde edo moldez burgesiak hierarkizatutako estetikaren umea izan zen narratiba osoa desegituratu zutenak, paradigma berriak eraikitzen mendebaldeko literaturarentzat. Nork bere modura. Kafkaren ilustrazioak sorturiko munduaren zentzugabetasuna, absurdoa eta eromena jarri zituen begi-bistan, horretarako bere idazkera bera ere sugetzar ero baten gisa jantzirik.

Umezurto gaude oraindik irakurle euskaldunok sormen mun-



■ 'Bizian argitaratuak'

Egilea: Franz Kafka. **Itzultzailea:** Naroa Zubillaga. **Argitaletxea:** Alberdania / Elkar. **Urtea:** 2007.

du berriaren obra fundatzaileak irakurtzeko orduan. Oker ez banao, Proustengandik ezer ez dugu oraindik, eta, Joyceri dagokionez, *Artistaren gazetako portreta* eta

Dublandarrak baino ez. Zorionekoagoa gara Kafkarekin, *Metamorfosia* (bi bertsiotan), *Prozesua* eta zenbait ipuin (itzultzaile desberdinen gustu-azareen arabera hautaturik) aspaldian baititugu euskaraz irakurgai. Ez dakit noraino ibil daitekeen buru tente gure hizkuntza literatura, Proust eta Joyceren lan nagusiak euskaraz bizitzeko aukera ez izan arte, arazoak arazo. Orain berri, ustekabe atsegina eman digu Naroa Zubillagak, irizpide metodiko batekin Kafkaren *Bizian argitaratuak* ipuin bilduma hau euskaratzen.

Zaila izan behar du Kafka edozein hizkuntzara itzultzeak. Haren idazkeratik euskarara ekarritako ipuin hauetan gogo biziz murgildu naizen honek ezer ez daki alemanieraz, eta ezin neurtu, beraz, zer galdu den pasabidean. Baina Kafkaren zale amorratu naizenez, aldera ditzaket elkarrekin ipuin hauetarik gehienegazte-larazko eta euskal itzulpenak. Konparatu, eta harro gelditu naiz, irakurle euskaldun bezala, Naroa Zubillagaren emaitzaz.

Ezin aipatu orain ipuin bilduma honen pizgarri literarioak. Baina bi gauza gutxienez bai. Lehenbizi, liburu honetako zenbait ipuinek, euren laburrean, Kafkaren obra

zentraletako balio nagusiak eskaintzen dizkigutela: atari ederra dugu Kafkari euskaraz irakurtzen treba gaitzen. Eta bigarrenik: deskripzioak eta arrazoibideen sigi-sagak direnez egile honen lanen betegarri nagusiak, korapilatsuak direla deskripzioak, gauzak eta mugimenduak perspektiba anitz eta etengabe aldakorretatik ikustarazten dizkigun espazio mugikor batean kokaturik; eta korapilatsuak direla protagonisten arrazoibideak, alde guztietatik hel dakizkiekeen hariak behin eta berriaz deslotuz eta katramailatuz, ondorio zehatzetara inoiz ere ez iritsi eta bizimodu absurdo horretan etsitzeko azken buruan. Bada, korapilo horiek adierazte aldera, funtzio berezia betetzen du Kafkaren idazkerak: deskripzio eta arrazoibideen enbor eta adarreai atxiki zaie sintaxia, sugetzar baten antza, sigi-saga amaigabeetan garatuz pasarteak, perpaus nagusien atzetik menpekoetako tren luzeak jarri, azken hauek berriz ere elkarrekin hierarkizatuz... Horrek zailtzen du itzulpen lana, hitz-edo metafora-jolasek baino higitz gehiago. Eta neke horretatik aterata airoso Naroa Zubillaga: Kafkari irakurtzeak beti eskatuko dizkigu ahailegin sortzaileak, baina kasu honetan ez dizkio euskarak oztopo handiagoak jarriko irakurle gogotsuari.

>> bserrano@berria.info